

Kazetariak.eus

EKE eta KEEren webgune berria irakurgai jada

- *Gaurtik aurrera gure web berria irakur dezakezu eta aurreratzean atari bakar batek jasoko du bi erakundeen informazioa, webak beste zerbitzu batzuk ere eskainiko dituelarik*



Bilbo, 2017ko urriak 11.- Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak *kazetariak* izenpean eta *.eus* domeinuarekin webgune bateratua aurkeztu dute.

Web atari berria, euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu da eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza du. Atariak nazioarteko estandar guztiak betetzen ditu eta bertara edozein euskarritik sar eta nabigatu daiteke: tableta, mugikorra, ordenagailua...

Diseinu argia eta modernoa du atariak eta bi erakundeen informazioa modu erabilerrazean biltzen du. Espazio berri honek, informazio instituzional, 'Kazetariak' aldizkari-digitalaren zenbaki guztiak eta gizarte sarretako zein eguneroko albistek biltzen ditu.

Bulego birtuala

Web atariaren berrikuntzarik handienetariko bat bulego birtuala da. Modu honetan kide guztiek, zein interesa dutenek, tramiteak, datuen kudeaketak, berrikuntzak zein zalantzen kontsultak modu seguruan online egiteko aukera izango dute. Horretarako, webgunean hainbat formulario daude. Era honetan, gaurtik aurrera, beraz, ez da beharrezkoa izango Bilboko egoitzara aurrez aurre gerturatzea tramiteak aurrera eramateko.

AGENDA

<p>2017-09-21 18:30 - 20:00</p> <p>Jornada: LA VOZ DE LA INFANCIA MIGRANTE. Diálogo: Retos en la defensa de sus derechos y acogida en Europa</p>	<p>2017-10-10 19:30</p> <p>Mahai-ingurua: Manu Leguineche, Bilboren bihotz eta oroimenean</p>	<p>2017-10-27 09:00 - 13:00</p> <p>TOKIKOM Sariak 2017</p>	<p>2017-11-27</p> <p>Ziberkazaritzaren Nazioarteko IX.Kongresua</p>
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------

HARREMANETAN JARRI

MEZUA *

IZEN / ABIZENAK *

EMAIL *

GAIA *

Bidali

944.10.60.40

info@kazetariak.eus

Kokapena

WEB MAIL

KUDEATZAILAK

Colegio Vasco de periodistas

EDUKIAL KAZETARIEN ELKARTEA

Agenda ere puntu berritzailea eta azpimarragarria da. Egutegi zabal baten izaera izango du eta lanbidearekin eta ogibidearekin zerikusia duten ekitaldiak bilduko ditu bertan.

Era berean, artxibo lanak ere egitea du helburu kazetariak.eus atariak. Horrela, bi erakundeen informazioa, ibilbidea, kazetaritza sarien informazioa edota bertarako sortutako informazioa web atarian multzotzen da.

E-posta berria

Web berriarekin batera, bi erakundeen helbide elektronikoak ere moldatu egin dira modu errazagoan kontaktatu ahal izateko. Gaurtik aurrera info@kazetariak.eus izango da helbide nagusia, dena den, aurrekoek martxan jarraituko dute denbora batez eta helbide berrira birbidaliko dira.

OHARRA: Oraindik web berria osotzeko edukiak sortzen, igotzen eta fintzen ari gara baina bitartean, <http://www.kazetariak.eus/> miaztera sar zaitezke.